



PRENTSARAKO OHARRA
2019/03/29

Iruzur fiskalaren kontrako burrukea izan da agintaldi honetako Ekonomia eta Ogasuneko Batzordearen azken bileraren protagonistea

2018an iruzur fiskalaren kontrako burrukan lortu diran emaitzak eta aurtien zergak ez ordaintzea saihesteko apliketan ari diran erespideak izan dira Bizkaiko Batzar Nagusien Ekonomia eta Ogasun Batzordearen azkenengo bileraren protagonistak. José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzen Foru Diputatuak Batzordearen aurrera etorri da gaur, EH Bilduk eskatuta, iruzur fiskalaren kontrako Burruka Planaren eta Batuz sistemaren erespide orokorren ganeko informazioa emoteko.

Iruarrizagak azaldu dauenez, 2018an aurrera eroandako jarduketek 488,3 milioi euroko emaitza orokorra emon eben. Kopuru horretatik, 418,4 milioi euro Foru Ogasunari egindako iruzurrei jagokezan (4,9 milioi euro, BEZagaz erlazionautako zortzi delitu fiskalei jagokezan kuota ponderauetatik), 27,9 milioi interesei jagokez eta beste 42 milioi euro zehapenetatik etorri dira. Ogasun Diputatuak azpimarratu dauenez, emaitza horrek “hobetu egiten dau aurreko urteetan lortutakoa, eta Bizkaiko Foru Ogasunak iruzur fiskalaren kontra aurrera daroan burrukaren eraginkortasuna erakusten dau”.

Horren ostean, Iruarriazagak zehaztu dau iruzurraren kontrako burrukea dirutik harago doala, eta beste jarduketa asko be aurreikusten dituala, horreen artean prebentzinozkoak. “Ezin da neurtu zenbateko iruzurra egiteari izten deusnan Ogasunaren aurrean diru-sarrerak ezkutetako aukera guztiak ixten jakozan persona edo enpresa batek”, adierazo dau.

Iruzurrezko jarduerak hautematera eta saihestera zuzendutako prebentzinozko jarduketan artean 140 eredu dago, igaz 55.000 persona fisiko baino gehiagok aurkeztu eben jarduera ekonomikoen liburua. Ganera, atzerriko ondasunen ganeko 1.542 aitorpen baino gehiago aurkeztu ziran (720 eredu).

Iruarrizagak azpimarratu dau, baita be, 2018an zergen ganeko hezkuntza programa hasi zala ikastetxeetan. Bertan, Bizkaiko 63 ikastetxetako DBHko eta Batxilergoko 2.529 ikaslegaz egin zan behar, “herritarren, gazteen, zerga kontzientzia indartzeko, zergen gizarte arloko balioa eta zerbitzu publikoakaz daukien loturea azpimarratuz”. Ganera, 158 ikaslek Ogasuneko bulegoak bisitau ebezan, eta bertan prestakuntza saio batean hartu eben parte Bizkaiko Foru Ogasuneko beharginakaz. Aurton, zergen ganeko hezkuntza programa hori 81 ikastetxetara zabalduko da.

Ogasuneko Diputatuak, laneko prozesuen eta bere Saileko beharginen zergadunen kontrolerako espezializazioa be azpimarratu dau, Nazinoarteko Fiskaltza Unidadearen, Zerga Berezien Kontroleko Unidadearen, Fabrikazinoko Zerga Berezien Kontroleko Unidadearen edo kriptotxanponen erabilerari edo Internet bitartez ondasunak komertzializetako eta banatzeko eredu barriei arreta berezia eskaintzen deusnen Auditoretza Informatiko Unidadearen garapenagaz.

Bizkaiko Ogasunak jarduera ekonomikoen tributazioaren kontrolerako Plan integralean jarraitzen dau beharrean. Barrikuntza moduan, BEZaren liburuak eroateko Informazioaren Berehalako Horniduraren (IBH-SII) beharra jasoten dau, zergadun jakin batzuentzat. 2018ko urtarrilaren lein jarri zan martxan, eta ekitaldi horretan, fakturen ganeko 193 milioi datu baino gehiagori buruzko informazioa emon eban.

Informaziorako sarrera da iruzur fiskalaren kontrako burrukaren funtsezko beste elementuetako bat. Horregaitik, Ogasun Sailak informazioa truketan dau beste zerga administrazio batzuekatz, udalekatz, Eusko Jaurlaritzagatz, Notariotzaren Kontseju Orokorragatz, SPRIGatz, BEAZegatz, Lan Ikuskaritzagatz eta Lanbidegatz. Horreei guztiei, zergen ganeko informazioaren nazinoarteko trukea gehitzen jake, “gutziz beharrezkoa iruzur fiskalaren kontrako burrukan”. 2018an, 7.000 zergadun baino gehiagori buruzko informazioa batzea eta paradisu fiskaltzat hartzen diran lurraldeetan dagozan edo hareekatz loturea daukien erakundeetan parte hartzen daben 12 zergadunen lehenengo zerrendea egitea lortu dau. Erakunde horreetako zazpi aztertuta egozan daborduko, eta beste 3 soziedaderen kontrako jarduketatz hasi dira.

Bukatzeko, 2018an, Epaitegiek Bizkaiko Ogasunaren kontrako delituengaitiko hiru epai irmo emon ditue, 24 urteko kartzela zigorrakatz eta 78 urteko zigor gehigarriakatz, eta 8,2 milioi euroko likidazinoak eragin dituen epaiak gauzatu dira. Horrez gain, Bizkaian presentzia daukien nazinoarteko 3 talde ari dira ikertzen, eta nazinoarteko beste talde baten eragiketen erregularizazino a egin da. Azken horrek 600.000 euro ordaindu beharko ditu Bizkaiko Ogasunean, eta datoazan ekitaldietan 69,5 milioi euro konpentsau.

Horrez gain, 2.917.621 euro berreskuratu dira, Soziedadeen Zergan kengarriak ez diran gastuak hautemategaitik, 979.840 euro faktura irregularrangaitik, eta PFEZ aurkeztu ez eben zergadunei 6.394 agindu egin jakez, eta beste 2.163 agindu Soziedadeen Zergea ez aurkezteagaitik.

Ogasun eta Finantza Diputatuak azpimarratu dauenez, aurtengo iruzur fiskalaren kontrako Planak, aurreko urteetako planen jarraipeneko izaera garbia dauka, eta “nahiko zabala eta asmo handikoa” dala esan dau. Gehitu dauenez, `ad hoc´ programa informatikoen garapenak iruzur fiskalaren kontrako burrukea erraztuko dau. Arlo horretan dago jarduera ekonomikoak egiten dituen persona fisiko edo juridiko guztiei eragiketa guztiak Ogasunari modu telematikoa egitera behartuko deuzen Batuz sistema. Ganera, 240 sistema ezarriko da, soziedadeen ganeko eragiketa guztiak jakinarazoteko, eta Ticketbai sistema zabaldu egingo da. Sistema hori, faktura baxotxa denpora errealean jarraitzeko aukerea emoten dauen softwarea da. Iruarritzagatz azpimarratu dauenez, sistema “aitzindari” hori 2021eko urtarrilean egongo da ezarrita.

Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekidea izan da taldeen esku-hartze txandea hasi dauena, eta “Batuz ezkutuko ekonomia azalartzeko tresnea” izan daitekela esan dau. Arturo Aldecoak (Taldea Mistoa) azpimarratu dauenez, “Batuz sistemaren ganeko datuak oso interesgarriak dira”. Ildo berean, Eduardo Andrés Bizkaiko Talde Popularreko batzarkideak, “sistema horrek zergadunaren eta Ogasunaren arteko komunikaziorako aukera emon eta iruzurraren kontrako burrukea ahalbideetako dau”, adierazo dau. Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko bozeroaleak, “ekarpen fiskalaren garrantzia” azpimarratu dau, “aberastasuna banatzeko sistema dalako”.

Ekain Ricok, Euskal Sozialistak taldearen izenean, “ondo etorria emon deutso prebentzinozko jarduketak eta kontroleko informazioa batuko dituan Batuz sistemari”. Kontxi Claverrek (Euzko Abertzaleak), bere aldetik, iruzurraren kontrako burrukak “Aldundi honen lehentasunetako bat izaten jarraitzen dau, neurri barriztaileakaz”, esan dau.

Operarako eta zezenketetarako abonauak

Arantza Urkaregi EH Bildu taldeko batzordekideak ahozko erantzun-eske hau planteau deutso Iruarriazagari: “Kargu publikoek jasoten dituen ‘ondasunak’, operarako edo zezenketetarako abonauak, adibidez, ez dira gauzazko ordainketatzat jo behar eta euren 10T-tan sartu?”

Ogasuneko arduradun gorena, “tranpea daukan galderea” esanez hasi da erantzuten, eta horren ostean, “espezieko ordainketa horreek, norberaren gozamen pertsonalerako badira baino ezin jakoz errendimendu moduan egotzi, kargu publiko bati edo beste edozein personari”, esan dau. Ekitaldi horretan dauen presentzia instituzionala bada, barriz, ez jagoko haren PFEZn egotzi, zehaztu dau Iruarriazagak.

“Zeurea bai dala tranpea daukan erantzuna”, erantzun deutso Urkaregik, eta bere galderan “Bilboko Udalarri” buruz ari zala argitu dau. Horren ostean, Udaleko mezu elektronikoko bat irakurri dau. Mezu horretan galdetzen zan ea nor egoan zezenketetarako sarrerak jasoteko interesaut, eskuratutako 32 abonauak banatzeko. “Behargin arruntek, dieta bat jasoten badabe, aitorpenean sartu behar dabe”, azpimarratu dau Urkaregik, eta kargu publikoei emoten jaken “pribilegiozko tratua” kritikau dau. Ogasunari arreta dei bat egiteko eskatu deutso, espeziean jasotako guztia aitorpenean sartu daiten.

Iruarriazagak adierazo dauenez, “Udala bera da hori erabagi behar dauena”, eta “gozamina pribadua bada, bada errentea, baina gai instituzionala bada, ez da errentea”, esan dau barriro. Agintaldi honetako Ekonomia eta Ogasun Batzordearen azkenengo bilerea Iruarriazagak batzordekideei zuzendutako berbakaz amaitu da. “Errenta aitorpena egin behar da”, esan dau Diputatuak, bertan batutako guztien barrea eraginez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
29/03/2019

La lucha contra el fraude fiscal protagoniza la última reunión de la Comisión de Economía y Hacienda de esta legislatura

Los resultados de la lucha contra el fraude fiscal en 2018 y los criterios que se están aplicando este año para evitar la evasión de impuestos han protagonizado la última reunión de la Comisión de Economía y Hacienda de las Juntas Generales de Bizkaia. El Diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, ha comparecido hoy ante la Comisión, a petición de EH Bildu, para informar sobre las actuaciones contra el fraude fiscal y sobre el sistema Batuz.

Iruarrizaga ha explicado que las diversas actuaciones realizadas en 2018 arrojaron un resultado global de 488,3 millones de euros. De éstos, 418,4 millones de euros habían sido defraudados a las arcas forales (4,9 millones de euros, de cuotas ponderadas correspondientes a ocho delitos fiscales relacionados con el IVA), 27,9 millones corresponden a intereses y otros 42 millones de euros proceden de sanciones. El Diputado de Hacienda ha destacado que este resultado “mejora el obtenido en los años anteriores y demuestra la eficacia de la lucha contra el fraude fiscal que desarrolla la Hacienda Foral de Bizkaia”.

A continuación, Iruarrizaga ha precisado que la lucha contra la evasión fiscal va mucho más allá del dinero y contempla muchas otras actuaciones, entre ellas, las preventivas. “No se puede medir cuánto deja de defraudar una persona o una empresa a quien se le cierran todas las posibilidades de ocultar ingresos a Hacienda”, ha señalado.

Entre las actuaciones preventivas, dirigidas a detectar y evitar la realización de actividades fraudulentas, se incluye el modelo 140, el libro de actividades económicas que presentaron el año pasado más de 55.000 personas físicas. Además, Hacienda recibió 1.542 declaraciones de bienes en el extranjero (modelo 720).

Iruarrizaga ha destacado además que en 2018 se inició un programa de educación tributaria que se ha impartido a 2.529 estudiantes de ESO y de Bachillerato de 63 centros escolares de Bizkaia para “reforzar la conciencia fiscal de la ciudadanía, de los y las jóvenes, enfatizando el valor social de los impuestos y su vinculación con los servicios públicos”. Este año, este programa de educación fiscal llegará a 81 centros educativos.

El Diputado de Hacienda ha hecho hincapié en la especialización, tanto de los procesos de trabajo como del personal de su Departamento, para la realización del control de los contribuyentes, con el desarrollo de la Unidad de Fiscalidad Internacional, la Unidad de Control de Impuestos Especiales de Fabricación o la Unidad de Auditoría Informática, con especial atención al empleo de criptomonedas y a los nuevos modelos de comercialización y distribución de bienes a través de Internet.

La Hacienda de Bizkaia sigue trabajando en el Plan integral de control de la tributación de las actividades económicas, que incluye como novedad la obligación del suministro inmediato de información (SII) para la llevanza de los libros de IVA, a determinados contribuyentes. Se puso en marcha el 1 de enero de 2018 y durante ese ejercicio facilitó más de 193 millones de datos sobre facturas.

El acceso a la información es otro de los elementos claves en la lucha contra el fraude fiscal y por eso el Departamento de Hacienda intercambia datos con otras administraciones tributarias, ayuntamientos, con el Gobierno Vasco, con el Consejo General del Notariado, con la SPRI, con BEAZ, con Inspección de trabajo y con Lanbide. A éstas se añade el intercambio internacional de información tributaria, “un pilar en la lucha contra el fraude fiscal” que en 2018 ha conseguido recabar datos útiles de más de 7.000 contribuyentes y elaborar un primer listado de 12 contribuyentes que participan en entidades residentes o vinculadas con territorios considerados paraísos fiscales. Siete de estas entidades ya estaban inspeccionadas y se han iniciado actuaciones judiciales contra otras 3 sociedades.

Por último, en 2018 ha habido tres sentencias firmes de los tribunales por delitos contra la Hacienda de Bizkaia, con condenas de 24 años de prisión y penas accesorias por 78 años y se han ejecutado sentencias que han supuesto liquidaciones por importe de 8,2 millones de euros. Además, se están investigando 3 grupos multinacionales con presencia en Bizkaia y se ha llevado a cabo la regularización de operaciones de otro grupo multinacional que tendrá que ingresar a las arcas forales 600.000 euros y compensar en los próximos ejercicios un total de 69,5 millones de euros.

Se han recuperado también 2.917.621 euros por detección de gastos no deducibles en el Impuesto de Sociedades, 979.840 euros por facturas irregulares y se han efectuado 6.394 requerimientos a contribuyentes que no habían presentado el IRPF y otros 2.163 por la no declaración del Impuesto de Sociedades.

El Diputado de Hacienda y Finanzas ha destacado que el Plan contra el fraude fiscal de este año tiene un marcado tono continuista respecto a otros años y lo ha calificado de “bastante amplio y ambicioso”, añadiendo que el desarrollo de programas informáticos `ad hoc´ facilitará la lucha contra la defraudación. En ese ámbito se enmarca el sistema Batuz, que obligará a todas las personas físicas o jurídicas que realicen actividades económicas a comunicar todas las operaciones a Hacienda de manera telemática. Además, se implantará el modelo 240 para la comunicación de todas las operaciones de sociedades y se ampliará el sistema Ticketbai, un software que permitirá el seguimiento en tiempo real de cada factura emitida. Este sistema “pionero”, ha destacado Iruarrizaga, estará implantado el 1 de enero de 2021.

La apoderada de EH Bildu, Arantza Urkaregi, ha iniciado el turno de intervenciones de los grupos, asegurando que “Batuz puede ser un instrumento para aflorar la economía sumergida”. Arturo Aldecoa (Grupo Mixto) ha destacado que “los datos sobre el sistema Batuz son muy interesantes”. En la misma línea, Eduardo Andrés, juntero del Grupo Popular Vizcaíno, ha señalado que “este sistema va a facilitar la comunicación del contribuyente con Hacienda y permitir la lucha contra el fraude”.

Eneritz de Madariaga, portavoz de Podemos Bizkaia, ha hecho hincapié en “la importancia de contribuir fiscalmente porque es el sistema que permite redistribuir la riqueza”. Ekain Rico, en nombre de Socialistas Vascos, ha dado la “bienvenida al sistema Batuz que unificará las actuaciones preventivas con la información de control”. Por su parte, Kontxi Claver (Nacionalistas Vascos) ha subrayado que la lucha contra el fraude “sigue siendo una de las prioridades de esta Diputación, con medidas innovadoras”.

Abonos para la ópera y los toros

Arantza Urkaregi, apoderada de EH Bildu, ha planteado además la siguiente pregunta oral a Iruarrizaga: “¿No deben ser considerados los ‘bienes’, como los abonos para la ópera o corridas de todos, que reciben los cargos públicos como retribuciones en especie y ser incluidos en sus respectivos 10T?”.

En su contestación, el máximo responsable de Hacienda ha comenzado diciendo que se trata de “una pregunta trampa”, para añadir que “sólo procede imputar esas retribuciones en especie como rendimientos, tanto a un cargo público como a cualquier persona, si son para su disfrute personal”.

“La suya es una respuesta trampa”, ha replicado Urkaregi, precisando que en su pregunta ella estaba refiriéndose al “Ayuntamiento de Bilbao” y ha leído a continuación un correo electrónico del consistorio preguntando qué personas están interesadas en obtener entradas para las corridas de toros para distribuir los 32 abonos adquiridos. “Los trabajadores corrientes, si reciben una dieta, la tienen que incluir”, ha subrayado Urkaregi, quien ha criticado “el trato privilegiado” hacia las personas con cargos públicos y ha pedido a Iruarrizaga que haga una llamada de atención para que se incluya todo lo recibido en especie.

Iruarrizaga ha señalado que “es el propio Ayuntamiento el que tiene que dirimir esta cuestión”, incidiendo en que “si el disfrute es privado sí es renta y si es una cuestión institucional, no es renta”. La última reunión de la Comisión de Economía y Hacienda de esta legislatura ha concluido con unas palabras finales de Iruarrizaga a junteros y junteras. “Hay que hacer la renta”, ha dicho el Diputado, provocando la risa de todas las personas presentes.